

KOSTUAK

HASIERAKO INBERTSIOA

Gure proiektua aurrera eramateko, hasierako inbertsioa oso handia izango da. Guztira 53.000€ inbertitu beharko ditugu. Diru horren barruan, 1000€ko alokairua ordaindu beharko dugu, eta lehenengo ordainketa denez, 1000€ko fidantza ere eman beharko dugu, produktuak erosi, lokalaren diseinua eta konponketa eta ordenagailu eta inpresora bat sartzen dira.

HASIERAKO INBERTSIOAK	
Alokairua	1.000 €
Fidantza	1.000€
Produktuak erosi	40.000 €
Lokalaren diseinu eta konponketa	10.000€
Ordenagailu eta inpresora	1.000€
GUZTIRA	53.000€



NEGOZIOA MARTXAN DAGOENEAN

Negozioa behin martxan jarrita, kostuak askoz txikiagoak izango dira. Hori dela eta, hasierako diru sarreretara bideratuako gainontzeko 7.000€ak izango ditugu eskuragarri salmentak egiten hasi arteko kostuak estaltzeko. Denbora pasa ahala, eta salmentak egiten hasten garenean uste dugu gure saltokian saldutako produktuen etekinekin nahiko izango dela bai kostu finko zein aldakorrek ordaintzeko.

KOSTU FINKOAK hilabetean	
Alokairua	1.000€
Segurua	100€
Langileen soldata	1.000€ langileko (5 langile) 5.000€
Marketina	200€
Gestoria kostua	100€
GUZTIRA	6.400€
KOSTU ALDAKORRAK (estimazioa)	
Produktuak erosi	10.000€
Garraioa	500€
Enbalajea	500€
Zergak	Lortutako mozkinaren arabera.
Hornidurak (argia, ura...)	300€
GUZTIRA	11.300€
TOTALA	17.700€

BESTELAKO KOSTUAK

Kostu finko eta aldakorrez gain, bestelako kostuak identifikatzea inportantea dela uste dugu. Kostu hauen barruan ingurumen kostuak daude. Horregatik eta guk eragiten dugun kutsadura minimoa izateko helburua dugu eta jasagarritasun neurriak hartuko ditugu. Hala nola:

- Gure bilgarri guztiak birziklatutako materialarekin eginak daude.
- Plastikoaren erabilera murriztuko dugu, beharrezkoa dena soilik erabiltzen.
- Dendako telazko poltsak salgai izango ditugu, beste produktu ekologikoekin ere.
- Gure eskarien entregak antolatzerako orduan, ahalik eta bidai gutxien egiteko esfortzua egingo dugu.